

# **BANDOA / BANDO (B29-2020)**

## **CORONAVIRUS COVID-19 KORONABIRUSA**

### **EGOERA KEZKAGARRIA BERAN SITUACIÓN PREOCUPANTE EN BERA**

Osasun agintariak erran digute azken asteetan birusaren hedapenak gora egin duela Beran. Egunero badira positibo berriak eta goranzko joera etengabea da. Badira gaixoak ospitalean ingresatuak eta heriotza bat ere izan da.

Las autoridades sanitarias nos avisan que en las últimas semanas la expansión del virus ha aumentado en Bera. Cada día hay nuevos positivos y la tendencia al alza es constante. Hay enfermos ingresados en el hospital e incluso ha habido una muerte.

Egoera kezkarria da, eta ezin gara erlaxatu. Kutsatze kasu gehienak familia eta eremu pribatuan gertatzen ari omen dira. Gomendatzen da gehienez ere sei pertsona elkartzea lagunen edo familien bilera pribatuetan.

La situación es preocupante y no nos podemos relajar. Parece que la mayoría de los casos de contagio se están produciendo en el ámbito familiar y privado. Se recomienda que los grupos no superen las seis personas en reuniones privadas de amigos o familias.

Gainera, terraza eta espazio publikoetako segurtasun-arau guztiak bete behar direla ohartarazten dugu (segurtasun-distantzia, maskara behar bezala erabiltzea...).

Insistir además en la obligación de cumplir todas las normas de seguridad en las terrazas y espacios públicos (distancia de seguridad, uso correcto de la mascarilla...)

Egoera aldatzea denon ardura da, haur, gazte zein heldu. Ezagunak ditugun segurtasun eta higiene neurriak betetzea ezinbertzekoa izanen da egoerari buelta emateko. Norbere burua zainduz bertzeena ere zainduko dugu.

Revertir esta situación es responsabilidad de todos y todas, tanto niños-as, jóvenes como adultos. El cumplimiento de las medidas de seguridad e higiene es imprescindible. Cuídate, cuídanos.